



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025eko iraila

AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA	1 Jarraitu irakurtzen
AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN BATZORDEAREN BULETINA	2 Jarraitu irakurtzen
2025-2026 DENBORALDIKO TXERTAKETA-KANPAINA: GRIPEA ETA COVID-19	3 Jarraitu irakurtzen
ARNAS BIRUS SINTZITALAREN (ABS) AURKAKO 25-26 IMMUNIZAZIO-KANPAINA	4 Jarraitu irakurtzen
CHIKUNGUNYA BIRUSAREN EUSKADIKO EGOERAREN EGUNERATZEA	5 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK • Antidepresiboak modu seguruan kentzea eta benzodiazepinen depreskripzioa • Erroreen prebentzioa arrisku handiko medikamentuekin pediatrian • arGLP1en segurtasun-alderdiak eta inkretinetan oinarritutako obesitatearentzako medikamentuek dituzten ondorio kaltegarrien maneia • Polimedikatueta medikazioaren erabilera hobetzeko tresnak	6 Jarraitu irakurtzen
ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK	7 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK	8 Jarraitu irakurtzen
9. ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETAKO ZENTROETAKO SENDAGAIEN KATALOGOAN	9 Jarraitu irakurtzen

1

AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA

[Giza Erabilerarako Medikamentuen Segurtasunari buruzko Buletina](#) argitaratu da, farmakozaintzarako datuen aldizkako ebaluaziotik eratorritako segurtasun-informazio berria barne hartzen duena. Ebaluatutako medikamentuen artean, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- **Benzidamina:** saihestu haurdunaldian.
- **Dexketoprofenoa (formulazio sistemikoak):** Kounis sindromea, medikamentuen ondoriozko erupzio finkoa.
- **Dexketoprofenoa (formulazio topikoak):** kontraindikazioa haurdunaldian.
- **Digoxina eta enzalutamida:** interakzioa. Digoxina-maila seriko altu baina faltsuak detektatu dira enzalutamidarekin tratatutako pazienteetan.
- **Metilfenidatoa:** begi barruko presioa handitzea, glaukoma, begi lehorra.
- **Mikonazola (formulazio topikoak: dermatologikoak eta ginekologikoak):** warfarinarekiko interakzioa, efektu antikoagulatzailea areagotzeko arriskua.
- **Mikonazola (ahoko formulazioak):** medikamentuen ondoriozko erupzio finkoa.
- **Isoniazida:** pustulosi exantematiko orokortu akutua, lupus motako sindromea.
- **ABSaren aurkako txertoa (Arexvy®):** Guillain-Barre sindromea.
- **Bortioxetina:** haluzinazioak.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN BATZORDEAREN BULETINA

[Buletin honetan](#), EMAren Giza Erabilerarako Medikamentuen Batzordeak 2025eko uztailera bileran eman dituen iritzi garrantzitsuenak adierazten dira; bertan, AEMPSe ere parte hartzen du. Horien artean, dagoeneko baimenduta dauden medikamentuen indikazio berrietarako iritzi positibo hauek nabarmentzen ditugu:

- [Baqsimi® \(glukagoia\)](#) – 3 mg – sudur-hautsa dosi bakarreko ontzian:
Adin-tartea zabaltzea populazio pediatrikoan: **>1 urte.**
- [Invokana® \(kanagliflozina\)](#) – 100 mg, 300 mg – pelikulaz estalitako konprimituak:
Adin-tartea zabaltzea: 10 urtetik gorako haurrengan.

Argibide osoetarako, horien testu osoa kontsultatzea gomendatzen da AEMPSen webgunean eskuragarri dauden fitxa teknikoetan, [CIMA](#) atalaren barruan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 2025-2026 DENBORALDIKO TXERTAKETA-KANPAINA: GRIPEA ETA COVID-19-A

Osasun Ministerioaren Osasun Publikoko Batzordeak udazken-negu denboraldirako (2025-2026) **Gripearen eta COVID-19aren aurkako txertaketa-gomendioen eguneratzea** argitaratu du.

Aurreko urteetan bezala, aurtengo txertaketa-kanpainaren helburu nagusia zaurgarrienak diren pertsonen babesa indartzea da, morbid mortalitatea murrizteko eta infekzio horiek arreta sanitarioa eta soziosanitarioa emateko gaitasunean duten eragina gutxitzeko. Irailaren azken astean eta urrian zehar hastea aurreikusten da, nahiz eta oraindik Euskadin ez diren ezagutzera eman datorren kanpainako jarraibide zehatzak.

Dokumentuetarako estekak: [GripearenTxertaketaGomendioak 2025_2026.pdf](#)
[Covid19arenTxertaketaGomendioak 2025_2026.pdf](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ARNAS BIRUS SINTZITALAREN (ABS) AURKAKO 25-26 IMMUNIZAZIO-KANPAINA

Uztailan, 2025-2026 denboraldian ABSaren aurkako immunizazio-kanpaina eguneratzeko azken oharra argitaratu da, Osasun Publikoko Zuzendaritzak emana.

Dokumentuarekiko lotura: [Arnas birus sintzitalaren aurkako immunizazioa 2025-2026 denboraldian](#)

Dokumentu horretaz gain, Epidemiologiak honako argibide hauek eman dizkigu:

GAIXOTASUN LARRIA IZATEKO ARRISKU HANDIA DUTEN 24 HILABETETIK BEHERAGOKO BIZTANLEAK:

- TXERTAKETA-PAUTA: Denboraldi honetan aurreko denboraldiko irizpide berak jarraituko dira, eta 100 mg emango dira 10 kg baino gutxiago pisatzen badute, eta 200mg 10 kg edo gehiago pisatzen badute.
- ERREGISTROA: Txertoen formularioan ez da Niservimab 200mg agertzen. Muga hori dela eta, 200mg-ko erregistroa bikoitza izan behar da, hau da, 100mg-ko administrazioa bi aldiz erregistratu behar da, bietan data bera jarriz.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 CHIKUNGUNYA BIRUSAREN EUSKADIKO EGOERAREN EGUNERATZEA

Osasun Publikoaren Zuzendaritzak bidalitako Chikungunya birusaren Euskadiko egoeraren eguneratzeari buruzko [informazio-oharrean](#) (2025eko abuztuaren 1a), egungo egoera eta zaintza epidemiologikoari, diagnostikoari eta prebentzioari buruzko neurriak eta gomendioak deskribatzen dira.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

Antidepresiboak modu seguruan kentzea eta benzodiazepinen depreskripzioa:

The University of British Columbiak bere *Therapeutics Letter* publikazioan [Stopping antidepressants safely](#) artikulua argitaratu du, antidepresiboak pixkanaka kentzeari buruzkoa, tratamendua bat-batean etetearekin lotutako abstinentzia-arazoak saihesteko. Pazientearentzako gomendioak eta kasu praktiko bat barne hartzen ditu.

Era berean, [Benzodiazepinen \(BZD\) depreskripziorako gida](#) erantsi dugu. Gida hori ekainean argitaratu zuen *Journal of General Internal Medicine* (JGIM) erakundeak, eta bere helburua osasun-arloko profesionalei laguntza ematea da, abstinentzia-sintomak eta BZDen depreskripzioari lotutako arriskuak behar bezala maneiatu ditzaten.

Erroreen prebentzioa arrisku handiko medikamentuekin pediatrian:

Medikamentuen Erabilera Segururako Institutuak (ISMP-España) [buletin](#) bat argitaratu du pediatrian arrisku handiko medikamentuak segurtasunez erabiltzeko gomendioekin.

Pediatriako pazientetan, medikazio-akatsak medikamentuak erabiltzeko zirkuituaren etapa guztietan gertatzen dira, baina hauek **administratzean eta preskribatzean** dira nagusi; bestalde, errore mota ohikoena **dosifikazioarena** da.

arGLP1en segurtasun-alderdiak eta inkretinetan oinarritutako obesitatearentzako medikamentuek dituzten ondorio kaltegarrien maneia:

Medikamentuak Dokumentatzeko eta Informatzeko Andaluziako Zentroak (CADIME) arGLP-1en segurtasun-alderdiak berrikusten dituen [argitalpen](#) bat atera du, hauekin tratamenduan egotearen ondorioz pairatu daitezkeen ondorengo arriskuei buruz eskura dagoen ebidentzia jasotzen duena: tiroideko minbizia, pankrea, suizidio-arriskua eta neuropatia optikoa.

Bestalde, JAMA aldizkariak obesitatean semaglutida eta tirzepatida erabiltzeari lotutako kontrako ondorioen maneia buruzko [artikulu](#) bat argitaratu du, eta epe luzerako tratamendurako gomendioak jasotzen ditu.



Polimedikatueta medikazioaren erabilera hobetzeko tresnak:

Australian Prescriber aldizkariak multimorbiditatea eta polifarmazia duten pertsonen medikamentuak kudeatzeko laguntzeko diseinatutako bi tresna berri barne hartzen dituen [eskuliburua](#) argitaratu du.



[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

Hauetako dira iraileko berritasunak:

2025eko iraila		
	Midazolam	Buccolam® 10 mg aho-disoluzioa. Finantzatzeko indikazio berria: - krisi konbulsibo akutu eta luzeen tratamendua helduetan. Fitxa teknikorako esteka.

Indikazioa, finantzaketa edo preskripzioarako eta emateko baldintzak zabaltea.

2020ko urtariletik aurrerako berrikuntzak biltzen dituen [dokumenturako esteka](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

8

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK


Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Tiaprida (Tiaprizal®) ahobideko tantak, Diltiazem retard (Lacerol®, Angiodrox®) 90, 120, 180 mg kap. eta 240 mg konp., Klomipramina (**Anafranil®**) **10 mg (atzerriko medikamentu gisa eska daiteke)**, Oftalmolosa cusi prednisona neomicina® pda oftalmikoa, Oftacilox® (ziprofloxazino) 3 mg/g pda oftalmikoa, Diklofenako: Voltaren retard® 75 mg konp. eta Dolotren® 75 mg injeztagarria.
- Maprotilina (Ludiomil®) 25 mg eta 75 mg. Atzerriko sendagai gisa eska daiteke, txostena aurkeztuta, beste aukera terapeutiko batzuetarako trantsiziorik egin ezin bada. Tratamendu berriak ez hastera gomendatzen da. [AEMPSeK Ludiomilen hornidura egoera kliniko jakin batzuetara mugatzen du.](#)
- Butileskopolamina (Buscopresc®) supositorioak: ez da komertzializatzen.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Aldara® krema, Benzetacil® 1.200.000 UI, Eulitop® 200 mg, Jext® 300 eta Anapen® 0,15 mg y 0,30 mg 1 injeztagarria, Imigran® nasala 10 y 20 mg, Orbenin® 125 mg, Asmanex twisthaler® 400 mg, Vimpat® 10 mg soluzioa.

PRESBIDEn “Hornidura eza” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

9

ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETA KO ZENTROETAKO SENDAGAIEN KATALOGOAN

Aldaketa hauek egin dira “[lehen mailako arretako zentroetan erabiltzeko sendagai erabilgarriak](#)” katalogoan (soilik gaztelaniaz):

- **Actrapid®-en orde z Humulina® jarri da**, erosketa zentralizatua egin delako; biak dira ekintza azkarreko giza intsulinak. Humulina®-ren SAP kodea 710008 da. Horri dagokionez, eta dosifikazio desegokia duten xiringak erabiltzeagatik zenbait segurtasun-intzidentziaren ondorioz, komeni da Actrapid/Humulina injektatzeko xiringa zela edo esparatrapuarekin itsastea eta hozkailuan gordetzea, medikazioarekin batera.
- **Moviprep® sabor limón**ek zapore laranja-rend ordezkatz du. SAP kodea 656284 da.
- **Glucocemin 50%** anpoilak-ek kode nazionala aldatu du, kode berria 725132 da.
- **Enantyum®** anpoilen orde z, **Dexketoprofeno Normon®** 50mg/2ml anpoilak jarri da. Bere SAP kodea 606135 da.
- **Supofen®** anpoilen orde z, **Paracetamol Altan® 10 mg/ml perfusiorako soluzioa** jarri da, SAP kodea 658487 duena.
- **Dexclorfeniramina comb 5mg/ml** orde ztu eta **Polaramine®** jarri da, SAP kodea 813071 duena.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABAKo ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetza ko Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetza ren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez